



EUSKALERIKO

GIPUZKOA

ISAKI DEUNAREN JAIEGUNA

Ez dago munduan jai oni Gipuzkoan jai-kutsua kenduko dion gorri-jenderik. Diputazioak bere langileak lana eragin ziela; Donosti ta beste zenbait herritako udalak ere bai ta langile-talde batzuk ere bere gogoz lana egin zutela ta orrekin zer? Ori gora-bera Inaki deun eguna jai aundia izan zan Gipuzkoan.

Abertzaleak alegindu ziran eginale-tan jai au aundiki ospatzen. Aurregu-netik asiak ziran tokirik gelineetan. Donosti'n batez ere «Eusko-Abes-ba-tza» egin zun abestaldia bai izan zala bikaina! Asteko garaia zanean eu-ria zala ta etxera joan zan jendea izan zan, baño, gelinean an gelditu zi-ran euriari jaramonik egin gabe Bou-levard zugazti aundian.

Ater-unean igo ziran Olaiola-ren jendeak abes tokira ta baita abestu ere.

Jendea txoraturik utzi zuten eta be-rriz entzuteko gogoz. Asiak dira bein-tzat beste gau batean eta toki berean beste abestaldia egin bear lutekia es-katzen. Eguna aitatu ere egiten dute: dagonilleko Andre Mari aurreguna edo...

Egunean bertan berriz ura Meza Nagusi Andre Mari eliza nagusian. «Eusko-Abes-batza» bera goitik eta bee-tik oylari. Itzilar A. Egibar Josu-lagun gaztea. Azkenean Inaki deunaren ereserkia Sabin aundiaren itzak.

Ura Meza nagusi bikaina atera zan. Guztia ta guztiak ederki.

Eta arratsaldean Atotxa'koa? Beste jaialdia gutxi etzizala, 1.500 ezpata-dantzari beren yayotasuna erakusten. Ikusgarria izaten da jai ori benetan.

Euskotarrak jai ori galdutako araziko-dionik sortu? Ez dago bildurrik.

Eta aspeitarrak? Aspeiti'n ere beti bezela beren erritar Inaki deun, aundi-ko ta Lolola'ko Meza Nagusi ede-diari jai ederrak egiten dizkiote. Azpeir-rak aurren dirala jai-endana atsegi-na eratu dute aurren ere. Lengo oi-turari jarraituz, an zituzten aurren ere Gotzai jauna ta aldun abertzaleak eliz-jaiak ospea ematen.

Oietaz alde ba da beste erri bat Gipuzkoan Inaki deun egunez jai bere-zia egiten duna: Pasai Donibane de-zute bera.

Pasai'ko kai barrera ikusgarri ego-ten da egun ortako gauean. Pasai Do-nibane ta Pasai San Pedro ere bai be-ren etxe guztiak bengala argiz apain-duak dituztela, sorgin erri li dirala esan ditek.

Arratseko amarretan berriz argi po-litez apaindutako gudi ta errota ta baserri ta aate-irudiak eta lurrin-on-tzi txikiak ere bata besteen ondoren kaiean ibillaldia egiten dute. Eresba-tza an joaten da jendeen pozgarri. Eta gero ango su-ziak eta txupina-zoak... amaikatxu margotako suak i-kusten dira itxas gañetik ortzera za-laparta ta kea dariotela goraita gora igotzen...

Gero berriz jaialdia amaitezko egiten duten su-mendia, ura izaten da alako!

Su aurretan amaika txanpon eder eragiltzen da gau ortan... Inaki deun egunari era ortantxe agur egiten diote Pasai Donibane-tarrak eta Sanpedro-tarrak ere bai aiei laguntzen, eguna al-duten ongien eta aundikien ospatu ta gero...

Aurtengoa joan da ta orain Jaun-goikoak nai ba du datorren urte arte.

Biotza euskotarrak jaiotzatik dama-zu; zurea da berea, baso, mendi, toai, arru... Euskotarra zaitu beti zuk ongi. Inaki!! Ta zoriontsua Euzkadi beti izango da, Zuk Inaki zainduta...

GAXO ETXEO AUZIA

Auzia zutik dago oraindik eta ez di-rudi ez Gestorak eta ez Udalen amor emateko asmotan diranik. Beraan go-gor daudela esan bearko. Zabaldua ca-go langileak illaren 12'raiko gauza an-tolatzen ez ba da oporrera joatekoak dirala. Gobernadoreak aritu da ez dakit zer bear bezela egin ez dutelako opo-rra legearen aurkako izango dala. Dana dala langile guztiak oporrera jotzen ba dute, bidezkoa edo bide ga-bea oporra izango degula ori egia da.

Aldundiak ordea 5.375.000 laurle-koak bereala emango omen ditu ta gertu omen dago gañera bera lanak asteko. Lenengo egin bear diran lanak bideak omen dira ta ortan bereala asi omen ditek.

Itz ori jaso du gobernadoreak eta ba ditek txarrera baño lenago zerbait erabakitzea.

Lana eman lanik gabe daudenai ta pakea; ori izango litzake guztiontzat onena.

Udaraldia ez bait-da Donosti bate-rako oporrean asteko gararik egokie-na. Udazkenean enarak egiten dutena, orain bertan udara zaleak egitea nai ez ba dute, eratu dezateke gauza len bait len eta ongi.

LOTSA GALDUA

Gobernadoreak multa bota zion lengo egunean Donosti'ko ondartzan larru gorrian zebilen lotsa galdu ba-ti. Ordaintzeko txanponik ez omen zun ordea ta espetxera eraman zuten. Lotsagarria izan bear du ondartzan or-tan gertatzen dana; ta gauza bide one-tik eraman nai ba du, zigortu bearko ditu beste geiago ere.

Eluke ala ere geiegirik egingo, agin-tedunak ortarakoxe dute agintea.

Zarautz, Zumaia ta Deba ta Ondar-rabi'ko alkateak igeriketak eta eguz-ki-artzeak eta aitzaki dirala lengo ur-teetan ikusten ziran nabarmenkeri ta lotsa-gabekeriak galerazi egin dituzte beren errietan. Ori ondo. Beren egin-bearra betetzea besterik ez dute egin.

Gutxi dira ordea gai ontan beren egin bear ori betetzen dutenak eta txalogarri zaizkigu iru jaun zuzen oiek. Txaloak beraz zuei ta aurrera bide ortatik...

ERRERA'KO OPORRA

Errera'ko oporra idazten ari geran garaian lenean dago noski. Ba dira eguntxoak eta onezkerio aspertzeko ga-raia ere ba dute noski naiz batzuk naiz besteak.

Jauriariak orratik uste ona omen dauka aurki moldatuko ote dan. Itz-bidean asiak izango dira nunbait. Ia datorren astean oporra amaitu dan berria ematen degun.

LEN GUTXI IZAN ETA

Asaltoko txinelak len gutxi ziran nunbait eta beste 70 ekarri omen di-tuzte. Lolola'ko gudari-etxean eman diele bizi-lekua. Emen baño bear gei-go dan tokirik ez ote beste bat? Len-goak eta oraingoak ere alde egin da etsiko genuke ba guk.

TXOKEAK ETA ARRAPAKETAK

Eibar'en alkar jo zuten Logroño'ko autokamioi batek eta Bilbo'ko beste txiki batek. Aundia Fernando Marti-nez Azkona'k zeraman eta txikia Jose Luis Sabro'k. Bietan zijoazen iru

edo lau lagunak zauriak ba dituzte baño aundirik ez.

—Ordizia'n su artu zion bere auto-mobilak Vidal Lopez Elizalde'ri. Dana kixkali zan eta Vidal, bere emazte ta bost seme-alabak ba dituzte erreak. Aundi-aundirik ez ordea.

—Madrid eta Iruña'ko bideak bana-tzen diran tokian Naparro'ko bi au-tokamioi alkar jo zuten. Bengoetxe-tar Joan Kruz'ena zan bata ta bestea Zabalza'tar Polikarpo'rena. Bi tarran-tak naiko ondutuak gelditu ziran. Bi gizonak ezertxo ere ez.

—Antxo'n Bilbo'ko automobil batek Aliza'ko Goiburut'ar Trini jo ta bota zun lurrera. Aurrenetik gaizki bearko zun ustea izan zan baño gero gaxo-exea eraman eta bi zankotetan zauri batzuk besterik etzula agertu zan.

Luria zala ta irristatu egin zan automobila ta ezin nai zanik egin berarekin.

ITOA

Mendaro'n 17 illebeteko mutikotxo Urangat'ar Axentzio erori zan presa batera ta bertan ito zan. Zeruan dago orain. Bai ederkil!

DINAMITA LAPURRAK

Mikeleteen mendeen dira iru dina-mita-lapur. Aranburu'tar Jesus eta Matias Bergara'koak eta Elustondo-tar Maximo Aretxabaleta'tarra dira irurak. Lau paketé-dinamita, metxa-sorta bat eta gañera argin-tresna batzuk ostu zituzten eta Zumaia'ko irra-bola batean omen zeuzkaten gordeak. Orain berak gordeko dituzte espe-txean alditxo baterako.

Dr. R. Aranburu

LARRU AZALEKO GAITZEN

SENDAGILLEA

Egunero amaikatetik ordu bat'era ta lauetatik zazpietara

Fueros 5-3.º Urrutizkiña 1-03-85

DONOSTIA

ALBIZTUR

JALOTZA

Iratzusta beko Aramendi'tar Andres en emazteak izan duen semetxo be-rria, batayatu dute gure Elizan. Zo-riorenak gurasaok.

SARI BANAKETA

Emen «mutualista» ditugun nexka-mutikoen artean saritan banatzeko gure Gipuzkoa'ko Aurrezki-Kutxak aurren bidalitako 150 laurleko, kris-tau-ikasbidea ongiena dakiten eta ikasbide ortara jarraitzen dutenen artean, zozketa bidez eta 13 saritan, Uztaila'n 29'ko ingandean banatu zi-tuan gure Erretore jaunak.

Ara sarituak:

Aitza'ko Garmendia'tar Maria'k 25 Torre'ko Baztarrika'tar Julian'ek 20 Ospital beko Ayerbe'tar Miguel'ek 20 Erausti'ko Leunda'tar Anastasia'k 15.

Azarola azpiko Landa'tar Prantziz-ko'k 15. Urrutikoetxe'ko Arrue'tar Maria M-lagros'ek 10.

Urrutikoetxe'ko Arrue'tar Joxe An-tonio'k 10.

Erausti'ko Leunda'tar Anjelak 10.

Ospital goiko Laskibar'tar Maria Niebes'ek 5.

Goikoe'txe'ko Laskibar'tar Teodo-ra'k 5.

Alparo'ko Laskibar'tar Demetrio'k

Agerre'ko Elola'tar Joxe'k 5.

BERIAK

Erausti'ko Leunda'tar Eujenak 5 Guztiak batera, 150 laurleko.

Guztioi zorionak.

Dotriña ona ikasten

jarrai zintzo aurrak,

bera ez dakitenak

dira ta ankerrak

Txikitak ikasia

aztutzen uztiak...

gutxienez buruarin

dabiltza guztiak!

«ARNOPE»... ¡GOYAN BEGO!

Mutriku'ko euskal idazle on eta Luistar anai gazte zintzoaren il-be-rriak, atsekabatu nau. Ordea, nere ustez, orain arkitzen dan zeri goitik askoz geigo lagunduko digula otoi-tzeak, poztu ere bai.

«Arnope» zanaren gogo alde ototitu det, eta ototituko det, Jaungoikoak la-gun.

Bere senditar eta Mutriku'ko Luis-tar anai maite-maiteak, ar bezate ne-re biotzeko samin agurra.

LUISTAR

Soñek ebakitiz irakist

Amabost egunian erakusten du IZA'tar EUJENIAK mota guztieta-ko jantziak txurik, naiz kolorez-koak gizon, emakume eta aurrenak ebakitzen. «Sagardoak» eraz Maistrak euskeraz itz egiten du San Martin kalea, 29. 4gn bizitza ezkerretara.—DONOSTIA

ALEGI

Juan dan igandean eman zitzaio-ten aurtengo erri-jaiari beren bu-kaera.

Goizean bederatzietan, Amezket'a bi bider joan da etorri zeñek lenago egin txirindularen arteko apustua izan zan eta lenbiziko sariya irabazi zuen Agirre'tar Alejandro'k. Urrena, meza nagusia bukatu ondoren, pelota tokiko zelayean kale-beeko ta goikoen artean soka-tira indarketa izan zan.

Zelayeko lurra ortarako biar beze-la eratua ez dagolako eta tokia ere txikia dalako, apustu au etzan biar zuen añaiko ederra izan. Urrena obe-toxeago gauzak gertu ta anolatzen diranean nik uste det soka tira au egokiago aterako dala.

Gero plaza nagusian txanboliñak jotako sofui alayean bederatz biko neskatil polit lirafi guztiz ederki dan-tzatu ziran.

Lenbiziko saria Okiñena'tar Ana Mari poxpolin txiki panpoxak eta Ugartemendia'tar Margarite neska txukun lirafiak irabazi zuten. Urren-go sariyak beste guztiak eman zitzaiz-kien.

Arratsalde ta gaubean txistu ta musika soñuan dantzatu zan jendea.

Erromeri ontara albo errietako jende talde aundiak etorri ziran eta beste askoren artian Blafi'ko euskal idazle ta neskatil lirain polita dan «Baso lore» bere anai Paskual'ekin ementxen ikusi genduen.

—O—

Ostiral goizean eta Elizakoak artu ondoren, 80 urterekin il zan Gastesi'tar Mikel Andoni, makifa bat urte paper fabrian lanean aritutako arotz-zarra.

Gazte denboran bere kideko euskel-dun geyenak bezela, Jaungoikoa eta Furoen alde Karlistetan gudan ibi-ñia zan, eta orain, orduko maitasun

ayek berak, bañan erregerik gabe, euskotar jatorrak bezela zitualako Eusko-Batzoki'ko bazkidea zan.

Beragatik eta bere il-berria adieraz-teko Batzoki'ko Ikurriña erdi zabaldu ta zapi beltzez estaldus egon zan.

Bere emazteari illoba ta gañerako aideai eskegin zen diegu atsekabezko garai oietan geren laguntza eta ira-kurleai ototiz bana eskatzen diegu Mi-kel Andoni zanaren animaren alde G. B.

MOXKOLEGI

ANOETA

—Donostian egun batzuek igaro on-doren, ostera gure artean dago Bit-ori'ko apaiztegioko ikasle dan Barrundi baserriko Otegi'tar Toma.

—Erausi baserriko Zugazti'tar Juan Migel, aspaldian erriko Juez dagona, Elizakoak artuta gaxo xamiar egon ondoren, orain zerbait bizkortzen eta sendatzen asi dala jakiteakin asko poztutzen gera.

—Zazpi illabete zituan garayean, Argindegi baserrikoai Aranzabal'dar Andoni euskal izeneko seme zoragarri bat il zaiote. Atsekabe garratz onen ondoren, poztu bidez bere gurasaok zeruan aingeru bat dutela jakiteare-kin.

—Elizakoak eta azken Sakramen-tuak artu ondoren joan dan astean Jaunari kontu eman zion Txapartegi'tar Jose Mari, kristau on ta abertzale jatorrak.

—Baita igande goizean, Mendibel'ko etxeokandere agurgarri ta kristau zintzoa zan Arizti'tar Erramune, gu-re erriko alkate jaun prestuaren ama, Jaunak bereganatu zigun.

Laguntzen diegu atsekabeen bere sendi ta aideai, ta ARGIA'ko irakurle guztiak ototiz bana eskatzen diegu lidako oyen animo alde.

ERNIOPE

ARRASATE

Aspaldi ez det idatzi ARGIA mai-te ontan, baño «Ikasle»-k uda aldi-ko oporetak dauzkan ezkerre, nai nuke bete idazle onen tokia, berak egiten duan bezin ongi ez bada ere.

ELIZKIZUNAK

Jun dan igandean izan gendun gu-re Eliz Nagusian Meza berri ospetsu bat. Erri ontako «Aranguren» base-riko seme dan Aita Etxebarria Kar-meldarra zan Meza berriidun. Elizi-kun berean egin zuen bere lenengo Jaunartzea Aita onen illobatxo batek. Oso jende asko bildu zan jai aundi ta eder ontan.

Zorionak sendiko guztiak, ta batez ere meza emalle berari.

JUN ETORRIAK

—Egun batzuk dirala jun ziran oi duten bezela Deba'ko ondartzaz poli-tera emengo ume talde bat. Denbora aldi alaitsu bat igarotzea opa diet.

—Saturraran'dik etorri dira illabete igaro ondoren aapiz ikasle azkarrak.

—Egun gutxi barru joango da toki berera beste talde bat.

Lenengoak etorri diran lez etortzea opa diet.

ECURALDIA

Egun aietan bero izugarriak egiten dizkigu ta asi dira baserriarrak euria ta euria eske, legortzen dagozala baztar guztiak eta. Jaungoikoak biad-uko al digu euria.

Agur.

Mari'ren alaba bat.

ARETXABALETA

ITZALDIA

Jun dan larunbatean gure Eusko Etxea'n izan gendun itzaldi aberki bat. Abertzale askoren aurrean, len-bizi gure Alberdi zintzoak euskera garbiakin azaldu zizkigun egi garran-tzizkoak. Urrena Azkarraga jaunak, «Lur Gorri»-k, erderaz tamalez, baña bikaintsu; emezortzi urteko gazte abertzale azkar onek, etorkizun aundi daukala iruditzen zaigu. Batez ere langileak goratu zituan, bidezkoa dan bezela. Oso txalotua izan zan.

AZATZAN

Igandean karlista edo erregezaletak zuten beren itzaldia, Azatza auzoan. Ordizia'tik 8 «Guardia Zibila» etorri-ak ziran. Beti gertatzen da zer edo zer auk diran tokian, ta emen ere bateri ez nolanaiko astinduren bat eman omen zioten, Gora Santa Kruz deadar egin omen zuan ta. Azatza'ko baserriarrak entzun diotenez, zer ikasi aundia omen dute karlistak abertzaleagandik.


INAKI DEUNA

Iñoi'z baño abertzale geyagokin eliz-kizunak egin ditugu aurren. Inaki Deunaren Ereserkia ere abestu gen-duan.

ERRIKO JATAK

Andamariak badatoz. Iñoi'z pozik agertu bagara egun au artutzeko, aurtengoa ez dauka berdiñik. Txirindu-lari-laisterketa, Arrasate'ko «musika» ta gañera bertsolariak.

Batez ere baserriar asko pozik ar-kitzen dira bertsolariak datozelako.



Sega

zo rotza eta orpoz

sendoa. Bere “Ezkuña”

Bere
markea:

Kaltzayu gogor-zimelakin Legazpin egindakoa

Segalari onenak diote, au beze-

lako segar k ez dutela ezagutu

Ezkuña daukan sega bat,
Elbaria ateratzen bazatzu,
Ordezkoa emango zatzu.

Erostekoan ondo begiratu:
Ezkuña kirtenean agiri ez badu,
Ez inola ere artu.